

Bezeroekiko harremanak

Bezero berriak lortzeko instagram kontu bat sortzea pentsatu dogu, gure jatetxeari buruzko informazioa eman ahal izateko, jendeak jakin daian jasangarritasuna eta kilometro 0 dala gure jatetxean nabarmendu nahi doguna. Jasangarritasuna da bigarren kezka munduko biztanleen % 23rentzat. Bezeroek joera handiagoa dabe ingurumen-inpaktu positiboa dauen kalitatezko produktu bat erostera, ingurumenean eragin kaltegarria produktu bat erostera baino. Horretarako, gure bezeroak instagram bidez gure negozioari buruz iritzia ematera animatu nahi doguz, bezero gehiago erraz lortzeko. Instagramen, Ingurumena zaintzea zein garrantzitsua iruditzen jakun kontatuko dogu, eta 0 kilometroari buruz ere hitz egingo dogu, interesa daben bezeroek bi gai horiei buruz dogun interesa ikus daien, hortaz, argi utziko dogu prestatzen ditugun menuak kontsumitzen badabez 0 kilometroari lagunduko diotela baita planetaren jasangarritasunari ere. Gainera, gure menuetarako erabiltzen doguzan produktu batzuk aipatuko doguz. Instagramez aparte, gure helbide elektronikoa eta telefono zenbakia jarriko dogu ikusgai, edozein zalantza ebazteko edota bi bide horien bidez eskaria egiteko. Gure bezeroak berriro etor daitezcan lortzeko, gure jatetxearen eguneroko eskaintzak eta kupoiak posta elektronikoz bidaliko doguz eta informazioa emango dogu. Gainera, errezeta batzuk partekatuko doguz, etxean prestatzeko aukera izan daien. Bezeroen fideltasuna lortzeko, zerbitzu ona eskainiko dogu, beti gertuko tratua izango dogu, ez dogu bezeroekiko harremana galduko, baloratuak sentituko dira eta xehetasun guztiak zainduko doguz.